

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 ikasturtea

HEZKUNTZA ETA KALITATEA

Egilea: Leire Alkiza Ruesgas

Zuzendaria: Gurutze Ezkurdia Arteaga

Leioan, 2015eko ekainaren 3an

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA

AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera	5
“Kalitatea Hezkuntzan” sarea	7
Metodologia	11
Lanaren garapena	14
Ondorioak	21
Erreferentzia bibliografikoak	25

ERANSKINAK

1. eranskina: *Google Driven* nola jasotzen diren emaitzen argazkiak
2. eranskina: Ikastetxea “Kalitatea Hezkuntzan” sarean sartu aurretik zeuden irakasleentzako inkesta
3. eranskina: Ikastetxe “Kalitatea Hezkuntzan” sarean sartu baino beranduago heldutako irakasleentzako inkesta
4. eranskina: Inkesten emaitzak nola antolatu direnen adibidea
5. eranskina: Elkarrizketa

HEZKUNTZA ETA KALITATEA

“Kalitatea Hezkuntzan” sarea

Leire Alkiza Ruesgas

UPV/EHU

Ikerketa honen bidez, Euskal Herrian hezkuntza kalitatea bermatzeko dagoen sarearen, hau da, “Kalitatea Hezkuntzan” sarearen ebaluazioa egin nahi izan da. Horretarako, adituek berrikuntza eta hezkuntza kalitatea gaiei buruz adierazten dutenaren inguruan bilaketa bat egin izan da eta ondoren, sei ikastetxe ezberdinetako irakasle batzuei inkesta bat bidali izan zaie. Lortutako emaitzak oso ezberdinak izan dira, izan ere, irakasleen artean ez-adostasunak aztertu izan dira. Bestalde, ondorioetan, adituek azaltzen dutenaren eta irakasleek uste dutenaren artean, alde handia dagoela ondorioztatu izan da, lehenengok hezkuntza kalitatea nola definitzen duten eta irakasleek nola antzematen duten oso ezberdina izan delako.

Berrikuntza, kalitatea, “Kalitatea Hezkuntzan”, sarea

Mediante esta investigación, se ha pretendido hacer una evaluación sobre la red que hay en el País Vasco para garantizar la calidad en la educación, la red “Kalitatea Hezkuntzan”. Para ello, se ha hecho una búsqueda de cómo definen los expertos los términos innovación y calidad y posteriormente, se ha mandado una encuesta a profesores de seis centros diferentes. Los resultados que se han obtenido han sido dispares, pues se han encontrado desacuerdos entre ellos. Por otro lado, en las conclusiones, se ha analizado que tampoco coinciden las definiciones que dan los expertos respecto a la calidad y lo que los profesores creen que es.

Innovación, calidad, “Kalitatea Hezkuntzan”, red

By means of this research, it has been tried to do an assessment and evaluation of the established network in the Basque Country to guarantee the quality in education, the "Quality in Education" network. In order to perform this, an extent research regarding how experts define innovation and quality has been done, and then, surveys have been sent to six different learning centres' teachers. It has been found that the obtained results have been different among the teachers due to the disagreement between them in some matters. However, in the conclusions, it has been analysed that the definitions provided by experts regarding quality and what the teachers think about it are not the same.

Innovation, quality, “Kalitatea Hezkuntzan”, network

Sarrera

Aukeratutako gai orokorra *Mugimendu pedagogiko berritzaileak Euskal Herriko irakaskuntzan* izan da, eta hau kalitatean oinarritu da.

Hezkuntza kalitatea, azken garaietan adituen artean oso eztabaidatua izan den gaia da, definizioaren adostasuna lortu ez delarik. Bestalde, asko dira hezkuntza sisteman kalitatea bermatzeko bidean dauden programak, baina lan honetan, Euskal Herrian gaur egun dagoena izango da aztergai, “Kalitatea Hezkuntzan” sarea.

Ikerketa honen helburu nagusia, sarearen ebaluaketa egitea izan da, eta horretarako, sei ikastetxe ezberdinetako irakasleei inkesta bat bidali zaie eta Berritzegune Nagusian proiektu honen inguruan lan egiten egondako irakasle bati elkarrizketa egin zaio.

Garrantzitsua da proiektu edo programa hauek benetan kalitatea bermatzen duten aztertzea, izan ere, batzuetan, bide horretan lan egiten egon daitezke, baina benetan kalitatea ez bermatu, emaitzetan hori ikusten ez baita.

Modu honetan, esan bezala, ebaluatzaileak, batez ere, proiektu edo sare honetan sartuta dauden ikastetxe batzuetako irakasle batzuk izango dira, bi taldetan sailkatuak izan direnak. Alde batetik, proiektua txertatu aurretik jada ikastetxean zeudenak; eta beste alde batetik, beranduago heldutakoak. Horrela egitea erabaki da, emaitzen atalean, eman litezkeen desberdintasunak aztertu ahal izateko.

Lortu diren ondorioak anitzak izan dira, izan ere, inkesten bidez lortutako emaitzek, kasu batzuetan, desberdintasun handia izan dute.

Nagusiena, irakasleek uste dutenaren eta adituek kalitatearen inguruan ematen duten definizioaren artean batasunik ez dagoela da, izan ere, adituek kalitatea bermatzeko ebaluazioa egitea beharrezkoa dela adierazten dute, irakasle gehienen ustea beste bat delarik.

Hortaz, esan daiteke, lan hau interesgarria dela, bai adituen eta baita gaur egungo irakasleen usteak ere batzen direlako eta hezkuntza kalitatearen inguruan hausnartu egiten delako.

Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

Garai ezberdinetan zehar, hezkuntzan, kalitatea neurtzeko edo hezkuntza kalitatea definitzeko modu ezberdinak egon dira; Astinek (1992) honen inguruko bost ikuspuntu tradizional ezberdintzen ditu, nihilista, prestigioaren estimazioa, baliabideen neurria edo haztapena, emaitzen estimazioa eta balio gehituaren neurketa.

Ikuspegi nihilistako akademikoek, kalitatea neurtzea ezinezkoa zela uste zuten, hortaz, ez zituzten honen inguruko estimaziorik burutzen. Prestigioaren estimazioaren ikuspuntuari dagokionez, kalitatea, jendeak edo gizarteak uste zuenean oinarritzen zuten, hau da, kalitatea jendeak uste zuena bezala definitzen zuten.

Baliabideen haztapena ikuspegia erreparatuz, kalitatea baliabideen kopuruarekin lotzen zuten, zenbat eta material gehiago, orduan eta kalitatezkoagoa zen zentroa. Emaitzen estimazioaren ikusgunekoek aldiz, produktuen kalitatean jartzen zuten arreta, ikasleen emaitzetan, alegia. Azkenik, balio gehituaren neurketa ikuspegiak, kalitatea, zentroak ikasleengan zeukan eragin positiboaren arabera neurtu behar zela defendatzen zuen.

Gaur egun aldiz, aurreko definizio edo ikuspegi batzuk zaharkituta geratu dira, ez ordea guztiak. UNESCOk (2004) hezkuntza kalitatea definitzerako orduan, bi printzipio kontuan hartu behar direla adierazten du. Lehenengoak, ikaslearen garapen kognitiboa hezkuntza sistemaren helburu nagusia dela defendatzen du, beraz, ikasleak esparru horretan arrakasta lortzekotan, kalitatezko hezkuntza jaso duenaren seinale da. Bigarrenak, berriz, hezkuntzak ikasleen hiritar gisako garapenean jokatzen duen papera hartzen du kontuan eta hori kalitatearekin lotzen du.

Argi dago, hortaz, hezkuntza kalitatearen definizio bat ematea zaila dela, hala ere, adituek hau nola neurtzean edo ebaluatzean bat egiten dute. Lehendabizi, Astinek (1992) feedback edo berrelikaduran jarri zuen arreta, hau da, alderdi ezberdinen ebaluazioa egitean, hobetzeko asmoarekin.

UNESCOk (2004) ere, kalitatea neurtzeko, helburuen inguruko galderak egitea babesten du, hobetu daitezkeen alderdiak arkitzeko eta hauek hobetzea sustatzeko, azken finean, ebaluazio antzeko bat egiteko, hobetzeko dauden alderdiak hobekitzu.

Aipatzekoa da, Jiménez Fernándezek (2000), kalitatearen definizioa honen inguruan ematen duela, hau da, kalitateak bi maila dituela eta batez ere bi parametrotan neurtzen dela; alde batetik, erakunde batek aldaketarako eta egokitzapenerako daukan gaitasuna eta beste alde batetik, lortutako lorpenen maila eta bikaintasuna.

Horrenbestez, esan bezala, kalitatearen definizioan adituak ez datoz bat, baina bai kalitatea nola neurtu definitzean, izan ere, guztiek arazoak edo hobetu beharrean dauden alderdiekin eta hauek hobetzearekin lotzen dute; hau da, zentro bat kalitatezkoa dela esateko, ebaluazioak egiteko eta alderdiak hobetzeko kapaza izan behar da, gaitasun horiekin lotzen baita kalitatea.

Modu honetan, hezkuntza kalitatea, berrikuntzarekin lotu beharrean dago, izan ere, Cañal de Leonek (2002:149), berrikuntza, hobetzeko dagoen aspekturen bat aurkitzen denean jartzen dela martxan adierazten du, aipatutakoa aldatzeko eta hobekuntza lortzeko asmotan. Aldi beran, berrikuntza jaio, planifikatu, garatu eta ebaluatzen dela azaltzen du, bai banakakoen jardueretatik eta baita taldeen jarduera edo ariketetatik abiatuz ere.

Rivasek (2000:20) ere, hezkuntza berrikuntza definitzean, diagnostiko eta arazoen ebazpena, antolakuntzaren garapena, autoerrebisio eskolarra, irakasleen formakuntzaren garapena eta irakasleen akzio-ikerketa behatu behar direla esaten du, eta honen inguruan hausnartu, ondorioak ateraz eta geroko zikloetan hobekuntzak ezarriz.

Carbonell Sebarrojak (2002:11) berrikuntzaren inguruan emandako definizioari dagokionez, kalitatearekin lotura ere badaukala esan daiteke, izan ere, berrikuntzaren helburua, errealitatea aldatzea dela adierazten du, ikuskerak eta jarrerak moldatuz, metodoak eta esku-hartzeak aldatuz eta irakaste-ikaste prozesuak hobetuz. Horrela, berrikuntza aldaketara bideratuta dago eta osagai ideologikoak, kognitiboak, etikoak eta afektiboak hartzen ditu bere baitan.

Hortaz, laburbilduz, hezkuntza kalitateak eta berrikuntzak lotura handia daukatela esan daiteke; hobeto esanda, kalitatea berrikuntza kontzeptuaren barnean sartzen da, izan ere, kalitateak eskatzen duen ebaluazioa berrikuntzak ematen dio.

“Kalitatea Hezkuntzan” sarea

Gure gizartean, aurreko atalean aipatutako tendentziak edo adibideak aztertuz, behar bat sortu zen, izan ere, ikastetxeetako lana ez zegoen sistematizatua, gauza asko idatzita zeuden baina inork ez zekien idatzita zegoela eta ondorengoei ez zitzaien lana ondo pasatzen.

Horrela, lana sistematizatzean, idatzita zegoenaren inguruko eztabaidak, hausnarketak, ebaluazioak... etor zitezkeela ohartu ziren, kalitatearen kontzeptua bermatuz. Gainera, lan edo dokumentazio hori partekatu zitekeela konturatu ziren, sarean lan eginez.

Modu honetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, zenbait lege publikatu zituen gaur egun “Kalitatea Hezkuntzan” sarea bezala ezagutzen duguna sortu zen arte.

2003ko urtarrilaren 8an EHAAn 864. zenbakiarekin argitaratutako legean edo aginduan, Kalitatea Kudeatzeko Sistema, esperimentazio proiektu pilotu gisa agertu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zenbait ikastetxetan abian jartzeko baimena jasoz.

Proiektuaren helburua, berritzeko, ikertzeko eta esperimentatzeko prozesua garatzea zela zehaztu zen. Iraupenari dagokionez, 2002/2003 eta 2003/2004 ikasturteak zirela adierazi zen, beste ikastetxe batzuetara zabaltzeko aukerak eta baldintzak ebaluatu nahi zirelarik.

Ikastetxeek beren arteko sareen bidez jardungo zutela adierazi zen, elkarri laguntzeko eta esperientziak aprobetxatuz. Aipatzekoa da, esperientziak bi maila hartzen zituela barne, alde batetik, EAEko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak eta beste alde batetik, zerbitzuen ordezkaritza bat, aholkularitzan eta prestakuntza prozesuetan parte hartuz.

Behin aurreko legeak adierazten zituen bi ikasturteak amaituta, kalitatea eta etengabeko hobekuntza jarduera-elementua bilakatu zenez zenbait ikastetxeetan, 2004ko irailaren 13an 175. zenbakiarekin argitaratuko aginduak, esperientzia zabaltzeko beharra adierazi zuen, nahikoa ikastetxez osatutako sare bat sortzeari ekinez.

Legeak helburu hauek planteatu zituen:

- Ikastetxeetan, etengabeko hobekuntza-prozesuak sustatzea, erraztea eta bultzatzea
- Ikastetxeei, etengabeko hobekuntza-prozesu arrakastatsuak izateko, beharrezko informazioa, tresnak eta aholkularitza ematea
- Zeinahi esparrutan praktika onak dituzten ikastetxeen sarea osatzea, besteentzat jarraitu beharreko eredu bihurtuz

Agindu honek ere Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren baldintzak azaldu zituen, hainbat esparrutan banaturik; zuzendaritzaren ardurak, irakas-plangintzaren prozesua, irakatsi eta ikasteko prozesua, harrera-azpiprozesua, programazio-azpiprozesua, gelako jardueren azpiprozesua, ebaluazio-azpiprozesua, tutoretza-azpiprozesua, ez-adostasunak kudeatzeko prozesua, agiriak kudeatu eta kontrolatzeko prozesua eta ebaluazio eta barne auditoretzan prozesua.

Azkenik, 2005eko uztailaren 8an 130. zenbakiarekin argitaratu zen legearen bidez, “Kalitatea Hezkuntzan” izeneko Kalitatea Kudeatzeko Sistema sortu zen eta honi dagozkion ziurtagiriak eta zigilua ezarri ziren.

“Kalitatea Hezkuntzan” sarea, berez, ikastetxe publikoetako zenbait irakaslek osatzen duten lantaldea da, ikastetxe publikoetara bideratuta dagoena, eta ikastetxe bateko hezkuntza-jarduerako eremu nagusiak hobetzeko, etengabeko hobekuntza-prozesuak sustatu, erraztu eta bultzatzen ditu.

Azaldu beharra dago, departamentuak sare honen koordinaziorako bi plaza eskaintzen dituela eta hauek bi irakasle liberatu direla.

Helburu nagusia ikaslearen hezkuntza integrala bultzatzea da, curriculum, metodologia eta ebaluazioa planifikatuz, eta horretarako azpi-helburu hauek zehazten dituzte:

- Ikastetxeak hobetzeko etengabeko prozesuak sustatzea, erraztea eta babestea
- Etengabe hobetzeko prozesuak, arrakastaz martxan jartzeko behar den informazioa, aholkularitza eta tresnak ematea ikastetxeei
- Praktika onak dituzten ikastetxeen sarea sustatzea, elkarri esperientzia eta ereduak trukatzeko ahalbideratzen duena

Sareak ikastetxe osoari eragiten dio, izan ere, hainbat esparrutan aritzen da; hauek lau talde nagusitan sailkatzen dira.

Lehenengoa alde estrategikoa izango litzateke, eta honen barruan, plan estrategikoa eta urteko plana sartzen dira. Bigarrena, irakaste-ikaste prozesua da eta honen bidez, harrera-prozesu, programazio, gelako jarduera, ebaluazio eta tutoretzaren inguruan lan egiten da. Hurrengoa ebaluazioa izango litzateke, zeinek ez-adostasunak eta barne auditoriak hartzen dituen barne eta azkenik, dokumentazioaren kudeaketa aurkitzen da.

Lan kolaboratiboa da oinarria, beraz, lantalde koordinatuetan, iritziak, esperientzia eta informazioa trukaturik, berrikuntza erraztu nahi da, aldi berean, ikastetxeetako Hezkuntza Proiektuak aberastuz.

Aipatzekoa da, sare honek ere ikaste-irakaste prozesuan sakondu egiten duela, praktika onak sustatuz. Gainera, hezkuntza eskaintza, zerbitzuak, matrikula eta abarreko prozesuen diseinuan ere jartzen du arreta; baita irakas-praktikaren autoebaluazioan ere.

Sarea bost ezaugarri edo prozedura nagusitan oinarritzen da. Alde batetik, misioa, ikuskera eta plan estrategikoa prestatzea eta horiek urteko plangintzan eta memorietan zehaztea eskatzen du, eskola-komunitate osoak parte hartzea bultzatuz. Beste alde batetik, metodologia eta ebaluazioa zehazteko, irakasleak duen koaderno erabiltzen da oinarri gisa; non tutore-lanaren zenbait arlo jasotzen diren.

Gainera, ikastetxean sartu berri diren ikasle, irakasle eta familiak hartzeko planaren plangintza ere sustatzen du sareak, horrela, ikastetxeko hezkuntza-proiektua ezagutzera eman eta ikastetxeko parte-hartzea eta giroa hobetzeko. Jarraikako ebaluazioa egiteko sistema ere planteatzen du, prozesu guztietan egindako lana baloratuz, finkatutako adierazleak arabera.

Sarea hitzak adierazten duen bezala, sareko lanaren aberastasunean oinarritzen da proiektua, honako hauek bultzatuz; jakintza partekatua, hausnarketa, lan partekatua eragiten duen adorea jabetzea, konfiantza eta segurtasuna...

Lan hau modu ezberdinetan egiten da; alde batetik, hilean behin, ikastetxe guztietako irakasle batzuk biltzen dira eta aurretiaz zehaztutako gai baten inguruan eztabaidatzen dute lan kooperatiboa bultzatuz.

Beste alde batetik, urtean birritan, zentro ezberdinek sustatzen dituzten proiektu berritzaileak konpartitu egiten dituzte eta eskola hauetara bisitak egitera joaten dira gainerako irakasleak, proiektua hobeto ezagutzeko helburuarekin.

Azaldu beharra dago, sarean parte hartzen duten ikastetxeek, prozesu zehatz bat jarraitu behar dutela hobetzeko bidean, zein hiru pausoz osatuta dagoen.

Lehenengo aldian, lau pauso jarraitu behar dira, hau da, plan estrategikoa eta urteko plana diseinatu, curriculuma (programazioa, gelako jarduerak, ebaluazioa eta tutoretza) modu adostuan bildu, ebaluazioa eta hobetzeko planak definitu eta auditoretza eta ziurtagiriak zehaztu.

Bigarren aldian, hiru dira jarraitu beharreko prozedurak; praktika onak dituzten programazioak eta gelako praktikak identifikatu eta ikastetxean aplikatu; ebaluazio- eta tutoretza-prozesuetan sakondu eta beste prozesu batzuk burutu, hala nola, matrikula, ikastetxea antolatzea, prestatzea...

Amaitzeko, hirugarren aldian, lau pauso bete behar dira, hau da, irakasle-lana autoebaluatzeko eta hobetu beharrekoak antzemateko tresnak sortu, prestakuntza-premiak zehaztu, hobetzeko planak proposatu eta sareak antzematen dituen beste premia batzuei erantzun.

Azkenik, proiektu honetan parte-hartzen duten ikastetxeei dagokienez, komenigarria da azaltzea, hasiera batean, lehen aipatutako 2003ko urtarrilaren 8an EHAAn 864. zenbakiarekin argitaratutako legean, esperimentazio-proiektu moduan, lehendabizi parte-hartu zuten ikastetxeak agertu zirela.

Hauek Haur eta Lehen Hezkuntzakoak eta Bigarren Hezkuntzakoak izan ziren. Lehenengoei dagokienez, hamar izan ziren, eta bigarrenak erreparatuz, hamalau.

Gaur egun ordea, Derrigorrezko Hezkuntzan, berrogeita hamalau dira proiektu edo sarean sartuta dauden ikastetxeak, beraz, kopurua asko handitu dela esan daiteke, proiektuari bultzada emanez.

Metodologia

Aipatu bezala, gai orokorra *Mugimendu pedagogiko berritzaileak Euskal Herriko irakaskuntzan* da eta honen inguruan, ikerketa bat egitea pentsatu da, hau da, ikerketa bibliografiko bat.

Harluxet Hiztegi Entziklopedikoak (2003) definitzen duen moduan, ikerketa bat, “ikertzeko ekintza eta horren ondorioa; bereziki, eremu jakin batean ezagutza-arloa zabaltzearen egindako saioa” da. Bibliografiko hitza berriz, “bibliografiari dagokiona” bezala definitzen du.

Hortaz, esan daiteke, ikerketa bibliografikoa, informazio bibliografikoa biltzeko helburuarekin egiten den ikerketa dela.

Modu honetan, lehenengo fasean, hiru ikastetxe ezberdinetako hiru irakaslerekin kontaktuan jartzea erabaki da, haiek lan egiten duten zentroetan zerbait berritzaile egiten duten galdetuz.

Hirurek proposamen ezberdinak egin dituzte, bai hiru zentroetan egiten direnen inguruan eta baita beste zentro batzuetan egiten direnen inguruan ere, hala nola, robotika, web 2.0, ikas komunitateak, ikaskuntza kooperatiboa, adimen anitzak etab.

Hauen inguruko informazioa bilatu da datu base ezberdinetan, hala nola, Dialnet eta ADDI plataforman, baina gai guzti horiek jada landuak daudela eta lanak badaudela ikusi da.

Orduan, Berritzegune Nagusian lanean egon zen eta orain ikastetxe bateko zuzendaria denarekin batzar bat egin da eta honek “Kalitatea Hezkuntzan” sarearen inguruan egiteko proposamena luzatu du, izan ere, Berritzegunean landu zuen gaia da. Horrela, gai honi buruz lan egitea erabaki da, Dialnet, ADDI eta unibertsitate ezberdinetako biblioteketan honi buruzko lanik ez daudela ikusi ondoren.

Gaia aukeratu aurretik irakasle ezberdinekin kontaktuan jartzea interesgarria ikusi da, proiektu zein metodologia ezberdinen berri jakiteko eta ikuspuntu ezberdinak aztertu ahal izateko. Lagungarria izan da, zeren inguruan ezin den egin edo jada lanak daudela ikusi delako eta proposamen ezberdinak baloratu ahal izan direlako.

Informazioa bilatzen hasi baino lehen, lanaren helburu, “Kalitatea Hezkuntzan” sareak bideratutako metodologia berritzaileak ezagutzea eta hauen inguruan azterketa bat

egitea izan da, izan ere, sare honek metodologia berritzaileak bideratzen dituela uste izan da.

Bigarren fasean, informazio bilketarekin hasi, eta lehendabizi, berrikuntzaren azterketa bat egin da; hau da, orain arte termino honen inguruan emandako definizio ezberdinak aztertu dira, baina baita zertan datzan ere, askotan erabiltzen den termino bat delako baina sarri ez delako jakiten zehatz mehatz zein den definizioa. Horretarako, artikulu eta liburu ezberdinak aztertu dira, betiere berrikuntza hezkuntzaren esparrura eramanez.

Behin lan hau eginda eta “Kalitatea Hezkuntzan” sarea berrikuntza gisa kokatzean, hau da, sarea bere osotasunean berritzailezat har daitekeela ikustean, kalitatea terminoaren definizioa, hezkuntzaren eremuan, zein den ikertu da artikulu eta liburu ezberdinak aztertuz. Garrantzitsua izan da hitz honek zer esan nahi duen jakitea, izan ere, proiektua horretan oinarritzen da, kalitatezko hezkuntza bermatzean.

Ondoren, bi definizio horiek osatuta izatean, eta lanaren oinarri teorikoa bideratuta izatean, “Kalitatea Hezkuntzan” sarea legean lehen aldiz noiz agertu den bilatu da. Hortaz, EHAA/BOPV aztertu eta zenbait legetan agertzen dela ikusi da, guztiak aztertuz.

Amaitzeko, “Kalitatea Hezkuntzan” bera zertan datzan, dituen helburuak, jarraitzen dituen prozedurak... ikertzen jarraitu da, marko teoriko osoa osatuz. Datu hauek biltzeko, sare honen web ataria aztertu da, informazio gehiena bertatik eskuratuz.

Momentu horretan antzeman da, sareak proiektu berritzaileak bideratu ditzakela baina hori baino askoz gehiago dela. Beraz, lana berriro bideratu behar izan da, helburu ezberdina ezarri.

Modu honetan, sarearen ebaluaketa bat egitea pentsatu da, hau da, sarean sartuta dauden ikastetxe ezberdinetako irakasleei inkesta bat egitea, helburu nagusia, hauen ustez, benetan kalitatea bermatzen duen aztertzea izanik.

Jarraian, hipotesiak planteatu dira, bi hauek izanik:

- “Kalitatea Hezkuntzan” sareak irakasleen ustez, zentro baten kalitatea bermatzen du
- Sareak ebaluazioari garrantzia handia eman behar dio, eta irakasleak horren kontziente izan behar dira

Aipatzekoa da, aurretik bilatutako informazioa ez dela baztertu, hau da, baliagarria dela pentsatu da, izan ere, gai orokorra berrikuntza izanik, honen inguruko definizioak agertu behar dira, baita kalitatearen ingurukoak ere.

Baina kalitatearen inguruan, informazio gehiago bilatu da, bai hezkuntza kalitatearen inguruan eta baita hau nola neurtzen denaren inguruan ere, izan ere, marko teorikoa ez da osatuta egon.

Beraz, behin teoria edo informazio gehiena bilduta eta landuta izan ondoren, eta helburu berria argi izanik, inkestak diseinatu dira eta amaitzeko, Berritzegune Nagusian kalitatearen inguruan lanean egondako irakasle bati egin zaio elkarrizketa.

Lanaren garapena

Inkestak egiteko erabakitako lagina, 24 irakaslekoa izan da, zenbait irizpideren arabera aukeratuak. Alde batetik, maisu-maistrak sei ikastetxe ezberdinetakoak izatea nahi izan da, hau da, ikastetxe bakoitzetik, lau irakasleri bidali zaie inkesta eta lau hauek banaketa berezia izan dute. Bi, ikastetxean “Kalitatea Hezkuntzan” sarean sartu aurretik egondakoak izan dira, eta beste biak, ikastetxea sarean sartu eta beranduago heldutakoak.

Aldi berean, ikastetxeak ere lurraldearen arabera egon dira antolatuak, bi Bizkaikoak, beste bi Gipuzkoakoak eta azkeneko biak Arabakoak izan dira.

Horrela banatzea pentsatu da, alde batetik, sarean sartu aurretik zeuden irakasleen eta beranduago heldutakoen arteko emaitzetan desberdintasunak egon daitezkeelako, izan ere, lehenengoek aldaketa bizi izan zuten. Eta beste alde batetik, lurraldeen banaketa egitea pentsatu da, honetan ere desberdintasunak eman daitezkeelako eta aberatsagoa izan daitekeelako, lurralde baten ikastetxeen artean egitea baino.

Behin lagina aukeratuta eta zein ikastetxe dauden sarean aztertu ondoren, ikastetxeei *emailak* bidali zaizkie. Hasteko, Arabako biri bidali zaie eta erantzuna jaso denez, ez dira Arabako gehiagori bidali. Bi hauek Arabako Ikastetxea 1 eta Arabako Ikastetxea 2 izenak jaso dituzte.

Ondoren, Bizkaiko biri bidali zaie, eta batetik bakarrik jaso da erantzuna, Bizkaiko Ikastetxea 1 bezala izendatu denetik; hortaz, beste lauri bidali zaie eta soilik batek ere erantzun du, Bizkaiko Ikastetxea 2 izena jaso duenak.

Azkenik, Gipuzkoako biri bidali zaie *emaila* eta bietatik jaso denez erantzuna, ez dira gehiagori bidali. Gipuzkoako bi ikastetxeei Gipuzkoako Ikastetxea 1 eta Gipuzkoako Ikastetxea 2 izena eman zaie.

Inkestak bidaltzeko eta jasotzeko prozedura honakoa izan da; behin ikastetxeetatik erantzuna jaso ondoren, beste mezu bat bidali zaie ikastetxera, lau irakasleren helbide elektronikoak eskatuz, izan ere, inkestak *Google Driven* bidez prestatu dira eta hauek *emailez* bidaltzen dira, baita erantzun ere.

Prozedura hau eraman da aurrera, ikastetxe guztietara inkestak eramatera eta gero jasotzera joatea ezinezkoa izan delako; gainera, *Google Driven* bidez egitean, inkesten emaitzak¹ modu ordenatu batean jasotzen dira, lana erraztuz.

Aipatu beharra dago, bi inkesta mota prestatu direla, alde batetik, ikastetxean “Kalitatea Hezkuntzan” sarean sartu aurretik zeuden irakasleentzat² eta beste alde batetik, sarean sartu eta beranduago heldutakoentzat³.

Bi galdeketa hauek oso antzekoak dira, baina sarean sartu aurretik jada ikastetxean zeuden irakasleentzako inkestak galdera gehiago ditu, bi datu zehatzen inguruko galderak, sarean sartzeko arrazoiaren ingurukoa eta baita aldaketak eman direnen ingurukoa ere. Gainerako galderak, bi inkestetan berdinak dira.

Aurretik esan bezala, irakasle hauen artean ezberdintasunak eman daitezke, batzuek aldaketa hori bizi izan zutelako eta hori aprobetxatuz, galdera horiek egitea pentsatu da informazio gehiago izateko.

Modu honetan, behin inkestak bidalita eta jasotzean, erantzunak aztertu dira eta baita antolatu⁴ ere, baina aipatu beharra dago, ez direla irakasle guztien erantzunak jaso, soilik hamasei irakaslek erantzun dute.

Emaitzei emandako trataerari dagokionez, inkestei trataera kuantitatiboa eman zaie eta kalitatearen inguruan lanean egondako irakasleari egindako elkarrizketari⁵ trataera kualitatiboa.

Diseinaturiko inkesta, ebaluatzailea dela esan daiteke, izan ere, helburua, ikertu nahi denaren ebaluazio bat egitea da; Alviraren (d.g.) esanetan, “programa edo proiektu bati buruzko informazio bilketa egitea, horren funtzionamenduari, efektuari eta ondorioei dagokienez”.

¹ IKUS 1. eranskina

² IKUS 2. eranskina

³ IKUS 3. eranskina

⁴ IKUS 4. eranskina

⁵ IKUS 5. eranskina

Emaitzak

Aurreko atalean azaldu bezala, hogeita lau inkestetik, hamaseiren erantzuna jaso da, hau da, %66.7arena. Modu honetan, jarraian azalduko diren emaitzak, %66.7 horretan oinarrituko dira, hau da, portzentaje hori, %100a balitz bezala hartuko da.

Aipatu behar da, hauetatik, %68.75a, ikastetxea “Kalitatea Hezkuntzan” proiektuan sartu eta jada ikastetxean zeuden irakasleak direla eta gainerako %31.25a beranduago heldutakoak direla, hau da, ikastetxera heldu zirenean, zentroa “Kalitatea Hezkuntzan” sarean sartuta zegoen jada.

Lehen esan bezala, sei ikastetxe ezberdinetako irakasleei bidali zaie inkesta, eta gogoan hartu behar da zentro guztiak 2004. urtetik 2009. urtera bitartean sartu zirela “Kalitatea Hezkuntzan” sarean, beraz, guztiak sei urte baino gehiago daramatzate bertan, denbora nahikoa sarea aztertu eta ebaluatu ahal izateko. Gainera, ikastetxe guztiak oraindik sareko partaide dira.

Galdeketa hau irakasle ezberdinei bidali zaie, bai zuzendari, zein zuzendari kide, ohiko irakasle edota ordezko irakasleei. Hortaz, kontuan hartu behar da, erantzun dutenetatik, %12.5a zuzendariak izan direla, %18.75a zuzendari taldeko kide, %56.25a ohiko irakasle eta %12.5a ordezko irakasle; hala ere, datu hauek emaitzetan ez dira kontuan hartuko, datu soilak dira.

Aintzat hartu behar da ere, jasotako erantzunen %6.25a, aurten hasi dela dagoen ikastetxean lan egiten, %6.25ak ere, ikasturte bat daramala bertan, %12.5ak 3-5 ikasturte daramatzala, %18.75ak 5-10 ikasturte eta %56.25ak hamar ikasturte baino gehiago.

Ikastetxea “Kalitatea Hezkuntzan” sarean sartu eta jada bertan zeuden irakasleen artean (%68.75), inork ez zekien bertan lanean hasi baino lehenago zertan zetzan proiektua; ikastetxera beranduago heldutako irakasleen artean (%31.25) aldiz, %40ak bazekien.

Orain arte, ikastetxera lehenago zein beranduago heldutako irakasleen emaitzak osotasunean hartu dira kontuan, hau da, desberdinketarik egin gabe, baina hemendik aurrera, emaitzak bi ataletan banatuko dira, alde batetik, ikastetxea proiektuan sartu eta bertan jada zeuden irakasleen emaitzak bilduko dira, eta beste alde batetik, proiektuan sartu eta beranduago heldutakoenak aztertuko dira.

Lanaren garapena atalean azaldu bezala, bi inkesta mota bidali dira, bat jada ikastetxean zeuden irakasleentzat, eta beste bat ikastetxea sarean sartu eta beranduago heldutakoentzat; eta aipatu bezala, irakasleen lehenengo taldearentzako diseinatutako inkestak galdera gehiago izan ditu.


Horietako bat, zentro ezberdinak “Kalitatea Hezkuntzan” sarean sartzeko izandako arrazoiengatik izan da. Emaitzak ateratzeko, ikastetxe ezberdinetako irakasleek erantzundakoa hartu da kontuan eta ikastetxeen %100a antolamendu eta dokumentuen kudeaketaren beharra antzeman zutelako sartu zirela proiektuan erantzun dute.

Bestea, ikastetxean ze aldaketak eman diren galdetzen duena da, eta baita aldaketa metodologikorik izan dituzten ere.

Ze aldaketa somatu dituzten galderari dagokionez, emaitza ezberdinak jaso dira, eta irakasle batzuek erantzun bat baino gehiago eman dute, hortaz, guztiak bildu dira eta bost ataletan sailkatu dira; %18.18ak ikastetxearen helburua argiago dutela eta hori lortzeko bideak aldatu eta hobetu direla adierazi du; %27.27ak dokumentuen antolaketan nabaritu du aldaketa; beste %27.27 batek ebaluazioan ikusi du aldaketa, izan ere, ebaluazio gehiago egiten dituzte, baita irakasleenak ere; %9.09ak lan pilaketan nabaritzen du aldaketa eta azkeneko %27.27ak ikastetxearen kudeaketan, hobera egin baitu.

Aldaketa metodologikoak eman diren erreparaturik, %36.36ak ezetz erantzun du eta gainerako %63.63ak baietz esan du, hala ere, azken hauek ez dute metodologia zehatzik aipatu, soilik koordinazioan eta praktika onetan hobetu dutela.


Ikastetxe batean kalitatea bermatzen duen atala zein den galderari dagokionez, honako emaitzak jaso dira:



1. grafikoa. Kalitatea bermatzen duen atala jada ikastetxean zeuden irakasleen ustez.


Kasu honetan, irakasle batek kalitatea atal guztiek bermatzen dutela adierazi du, hortaz, emaitza guztiak hartu dira kontuan.

Ikastetxera beranduago heldutako irakasleei dagokienez, hauek dira jaso diren emaitzak:




2. grafikoa: Kalitatea bermatzen duen atala beranduago heldutako irakasleen ustez.

Ikastetxeetan lau atal hauetatik zeri ematen dioten garrantzia gehien galdera erreparatuz, emaitza hauek jaso dira:



3. grafikoa. Ikastetxean zein atalari ematen zaion garrantzia gehien jada eskolan zeuden irakasleen ustez.




4. grafikoa. Ikastetxean zeri ematen zaion garrantzia gehien beranduago heldutako irakasleen ustez.

Azaldu beharra dago, 4. grafikoari dagokionez, bi irakaslek ez dutela erantzunik eman, beraz, hiruren emaitzak bakarrik jaso dira.


Azken lau grafiko hauetako emaitzak bi ataletan eman dira, desberdintasun edota berdintasunak antzeman ahal izateko aipatutako bi irakasle taldeen artean, baina hurrengo emaitzak bateratuak aurkeztuko dira.

Jarraian azalduko diren emaitzak, inkestako taularenak dira. Kasu honetan, item batzuk aurkeztu zitzaizkien irakasleei eta 1etik (baxuena izanda) 5erako (altuena izanda) puntuazioa ematea eskatu zitzaien. (Itemak esaldiak dira).

Grafikoak bitan banatu dira, itemen gaiaren arabera. Alde batetik, sarearen inguruko galdera orokorrak agertzen dira, eta beste alde batetik, harremanen inguruko galderak.



5. grafikoa. Itemei emandako puntuazioa (1. atala). Irakasle guztien emaitzak kontuan hartuta.



6. grafikoa. Itemei emandako puntuazioa (2. atala). Irakasle guztien emaitzak kontuan hartuta.

Azken grafiko honi dagokionez, irakasle batek ez du errendimenduaren inguruko galdera erantzun, beraz, ez da kontuan hartu.

Itemen galdera erreparatuz, bi irakasle taldeen emaitzak biltzea erabaki da, izan ere, emaitzak oso berdintsuak izan dira eta modu honetan, emaitza argiagoak ikus daitezkeela uste izan da. Jarraian azalduko diren emaitzetan ere, irakasleen datu guztiak bateratu dira, hau da, ez da bi taldeen arteko banaketarik egin.

“Kalitatea Hezkuntzan” sarean egoteagatik, beste ikastetxe batzuekin alderatuta irakasleek nabaritzen dituzten alderdi positibo edo hobekuntzak aztertuta, emaitzak hiru ataletan banatu daitezkeela ikusi da. Argi utzi behar da, irakasle guztiek ez dutela erantzunik eman, hau da, %12.5ak ez du erantzun.

Erantzun dutenen artean, %12.5aren ustez, alderdi positiboa, ikastetxearen helburua markatuta dutela eta guztiek horri bideratuta lan egiten dutela da; %62.5ak adierazten du, dokumentazioaren antolamendua dela hobekuntza eta azkeneko %12.5ak azaltzen du, hausnarketarako eta ebaluaziorako hartutako ohitura dela ezberdintzen dituen alderdia.

Hobetu beharreko alderdiei dagokienez, erantzunak sei ataletan sailkatu daitezkeela ikusi da. Hala ere, esan beharra dago %43.75ak ez duela erantzun edo “ez dakit” erantzuna eman duela. Gainerakoen %12.5ak dokumentuei ematen zaien hainbesteko garrantzia gutxiagotu daitekeela adierazi du; beste %12.5 batek, kanpoko harremanak hobetu daitezkeela esan du; %6.25ak, kalitatea ez den beste sistema batzuk aztertzea ondo legokela adierazi du; beste %6.25 batek, talde lana ikusten du hobetzeko dagoela; %12.5 batek hobetzeko ezer ez duela ikusten adierazi du eta azkeneko %6.26ak IKTak hobetu behar direla adierazi du.

Azkenik, haien eskuetan “Kalitatea Hezkuntzan” sarean sartzea egongo balitz, zer aukeratuko luketen galdetu zaie. Irakasle guztien emaitzak bilduz, soilik batek (%6.26) erantzun du ezetz, lan handia dela eta gero emaitzak ikusten ez direla arrazoituz.

Baietz erantzun dutenek, lagungarria izateagatik eta dena antolatuta egotera laguntzeagatik baietza emango luketela adierazi dute.

Elkarrizketari dagokionez, zenbait emaitza atera daitezke, alde batetik, dokumentuen sistematizazio beharra izan zela sare sortzeko abiapuntua, garrantzia gehien hartzen duen atala ebaluazioa dela eta ez dela harremanen inguruan lanik egiten.

Ondorioak

Aipatu bezala, lan honen helburua, “Kalitatea Hezkuntzan” sarea ebaluatzea izan da, hau da, irakasleek honen inguruan duten iritzia batzea, beraz, lortutako emaitzak erreparatuz, helburua bete dela esan daiteke, izan ere, inkesta irakasle nahikok erantzun dute eta emaitza ezberdinak lortu dira.

Egia da, egindako inkestetatik ateratako emaitzen bidez, ezin dela ebaluazio zehatza egin, orokorra baizik; baina hala ere, emaitzak aberasgarriak izan dira, zenbait ondorio atera daitezkeelako haietatik.

Ondoriorik garrantzitsuena edo deigarriena, ebaluazioaren ingurukoa da. Marko teorikoan landu den moduan, kalitatea, batez ere ebaluazioarekin lotzen dute adituek, hau da, ebaluazioaren beharra ikusten dute hobetzeko dauden alderdiak antzemateko eta gero hauetan hobekuntzak txertatzeko.

Emaitzetan ikusi den bezala, irakasleen ustea bestelakoa da, izan ere, ez dute ebaluazioa kalitatearen adierazle moduan ikusten. Ondorioz, esan daiteke, irakasleek ez dutela kalitatearen inguruko formakuntza sakonik jaso, izan ere, kasu horretan, ebaluazioa eta kalitatea oso lotuta daudela jakingo lukete.

Egia da ere, haien ustea, hau da, irakaste-ikaste prozesuak kalitatea bermatzen duela, egokia dela, batzuen ustez, UNESCOren ustez adibidez, kalitatea horretan oinarritzen delako. Baina lehen aztertu den bezala, definizioan ez dago batasunik, hortaz, nola neurtzearekin lotu behar da definizioa, marko teorikoan azaldu bezala, horretan baitago adostasuna, ebaluazioan, alegia.

Hala ere, elementu garrantzitsutzat jo ez arren, gutxi batzuek, sarean parte hartzeak dituen alderdi positiboak dagokienez, ebaluazioa aipatu dute, horren garrantzia aldarrikatuz.

Modu honetan, esan daiteke, hasiera batean, garrantzia aldarrikatu ez arren, beste galdera batzuetan, ebaluazioa aipatu dela eta antzeman dela ikastetxeetan hau sustatzen dela, adituek honen inguruan ematen duten definizioarekin bat eginez.

Sarearen balorazioari dagokionez, orokorrean, balorazio positiboa egiten dutela esan daiteke, irakasle guztiek, batek izan ezik, haien eskuetan sarean sartzeko erabakia egongo balitz, proiektuan parte hartuko luketelako, hau datu interesgarria izanik.

Beste ondorio garrantzitsu bat dokumentazioaren ingurukoa da. Emaitzen atalean aurkeztu bezala, ikastetxeen %100a antolamendu eta dokumentuen kudeaketaren beharra antzeman zutelako sartu ziren proiektuan, hala ere, ikastetxeek, irakasleen ustez, irakaste-ikaste prozesuari ematen diote garrantzia gehien.

Egoera hau eman daiteke, izan ere, ikastetxe batean, helburu nagusia, haurren garapena sustatzea eta bermatzea da, baina aldi berean, ikastetxeak dokumentazioaren kudeaketa beharragatik sartu baziren “Kalitatea Hezkuntzan”-en, sareari dagokionez, dokumentazioaren kudeaketari garrantzia handia ematen diotela esan nahi du, edo behintzat hori ulertzen da.

Bestalde aipatzekoa da, irakasle batek hobetu beharreko alderdian, dokumentazioari garrantzi gutxiago eman behar zaiola esaten duela. Hau ulergarria da, izan ere, aztertu denez, ikastetxe guztiak arrazoi beragatik sartu ziren sarean eta gerta daiteke honi garrantzia handia ematea, batzuetan gehiegizkoa.

Modu honetan, suposatu daiteke ikastetxeetan dokumentazioaren kudeaketari garrantzia ematen diotela, arrazoi horregatik sartu baitziren sarean, baina irakasleek hori ez ikustea, horren ingurua lan egiten ez dute eta.

Itemen galderak erreparatuz, beste ondorio garrantzitsu bat atera daiteke, hau da, eman diren emaitzen ezberdintasun handia.

Lortutako emaitzarik deigarriena, sare honek kalitatea bermatzen duenaren ingurukoa izan da, izan ere, hamaseik erantzun dute, bederatzik lauko puntuazioa emanez eta zazpik biko edo hirukoa. Hiru puntu ematean, erantzuna erdiko puntuan kokatzen da, hau da, puntuazio hau eman dutenen ustez, sare edo proiektuak ez du kalitatea bermatzen, izan ere, esan bezala, erdiko puntu horretan daude, baietza ez emanez.

Horretaz aparte, harremanen emaitzetan ere, familiakoari dagokiona izan ezik, lortu diren emaitzak oso ezberdinak izan dira. Hortaz, esan daiteke, irakasleek ez daukatela argi sare honen bidez harremanak lantzen diren ala ez.

Elkarrizketan jasotako emaitzak kontuan hartuz, harremanak lantzen ez direla aztertu da, hau da, gerta daitezela sarean sartuta egotetik harremanak hobetzea, baina proiektu honek ez duela horri begira lan egiten. Beraz, uste da irakasleak ez daudela horren jakinaren gainean.

Modu honetan, emaitzei dagokienez, interesgarriak izan direla esan daiteke, izan ere, irakasleen ustea jaso da eta zenbait ondorio atera ahal izan dira, nagusiena ebaluazioaren ingurukoa izanik.

Uste da, nahiz eta ikastetxe batek proiektu honetan parte hartu, irakasle batzuek ez daukatela argi zertan datzan, are gehiago, batzuek ez dutela baliagarria ikusten. Izan ere, askok ez dute kalitatea bermatzen duenik uste eta ez da argi geratzen irakasleek helburua zein den dakiten ala ez.

Behin galdeketen bidez ateratako ondorioak aztertu direla, GRALaren hasieran finkatutako hipotesiak bete diren ala ez arakatuko da. Planteatutakoak, “Kalitatea Hezkuntzan” sareak irakasleen ustez, zentro baten kalitatea bermatzen duela eta sareak ebaluazioari garrantzia handia eman behar diola, eta irakasleak horren kontziente izan behar direla izan ziren.

Orain, emaitzak ikertuta, hipotesiak bete ez direla esango da, izan ere, azaldu bezala, ez dago adostasuna proiektuak kalitatea bermatzen duenaren inguruan eta gehiengoak ez du ebaluazioaren inguruko erantzunik eman, honen garrantzia ikusten ez dutela erakutsiz.

Ikerketa hau egin ondoren, hausnartu daiteke, hasiera batean sortutako zalantza argitu dela, hau da, “Kalitatea Hezkuntzan” berrikuntza dela. Beraz, azaldu nahi da, hau dela lortutako alderdirik nagusiena, aberasgarriena, beste modu batean esanda, ikerketa hau egitean argien geratu den kontzeptua, berrikuntzaren definizioarekin batera. Gainera, sare edo proiektu hau osotasunean ulertu dela ere esan daiteke.

Aldi berean, aipatutako hiru alderdi horietaz aparte, lan honen bidez, beste gauza bazuk ere lortu direla uste da, hala nola, ikerketa bat diseinatzea eta horren emaitzak eta ondorioak ateratzeko gaitasuna garatzea. Egia da, azaldu bezala, lortutako emaitza

batzuk argiak izan diren arren, beste batzuk zalantzazkoak edo ilunak izan direla, hala ere, amaieran, ikerketa nahiko osatu bat egitea lortu dela esan daiteke.

Azkenik, etorkizuneko ikerketa batzuei begira, ikerketa hau sarrera gisa erabili daiteke, izan ere, aukeratutako lagina ikerketa handi batekin aukeratu beharrekoarekin alderatuta txikia izan da eta esan bezala, emaitza batzuk ilunak. Proposatzen da, hurrengo bat egongo balitz, irakasleei egiteaz aparte, Berritzeguneko eta Hezkuntza Saileko langileei eta honen inguruan lan egiten duten koordinatzaileei ere egitea, haien usteak jasotzeko eta lan borobilagoa lortzeko.

Erreferentzia bibliografikoak

- Alvira, F. (d.g.). La investigación evaluativa: una perspectiva experimentalista. *Reis*, 29/85, 129-141.
- Astin, A. (1991). ¿Por qué no intentar otras formas de medir la calidad? *Revista de la Educación Superior*, 78, 25-40.
- Cañal de León, P. (2002). *La innovación educativa*. Madril: Akal.
- Carbonell Sebarroja, J. (2002). El profesorado y la innovación educativa. Cañal de León, P. *La innovación educativa-n* (11-14 or.). Madril: Akal.
- EHA/BOPV. (2003). 2003ko otsailaren 12ko Agindua. Zk-864. 1997-2001.
- EHA/BOPV. (2004). 2004ko irailaren 13ko Agindua. Zk-175. 17129-17137.
- EHA/BOPV. (2005). 2005eko uztailaren 8ko Agindua. Zk-3600. 13333-13339.
- Etxague, X., Huegun, A., Goñi, J. M., Aramendi, P., Ayerbe, P., Sola, J. C., Oyarzabal, J. R., (2009). Kalitatea hezkuntza: ikerketa baten ondorioak. *Tantak*, 21, 75-94.
- Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. (2011). *Hezkuntza Sareak*. 2014-12-09an hartua, hemendik: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r432459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_liderazg/adjuntos/210004e_Doc_BGN_Hezkuntza_sareak_e.pdf
- Galván, L. (2010). *Guía para la confección del Trabajo referativo tipo Revisión Bibliográfica*. 2015-4-23an hartua, hemendik: http://www.polgalvan.sld.cu/contenido/metinvest_trab_referativo_rev.htm
- Hernández Pina, F.; García-Sanz, M.P. y Maquilón, J.J. (d.g.). Análisis de los datos cualitativos. *Metodologías de Investigación en Educación Infantil y Primaria*. 2015-05-02an hartua, hemendik: <http://ocw.um.es/cc.-sociales/metodologias-de-la-investigacion-en-educacion/material-de-clase-1/t1.5.analisis-datos-cualitativos.pdf>
- Jiménez Fernández, C. (2000). Evaluación de la calidad de las instituciones escolares: docencia, investigación y gestión. *Revista de Investigación Educativa*, 18, 553-564.
- Klaudio Harluxet Fundazioa. (d.g.). *Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*. 2015-02-13an hartua, hemendik: <http://www1.euskadi.net/harluxet/>
- Hezkuntza Saila. (2012). *Kalitatea Hezkuntzan Jardunaldiak*. 2014-12-09an hartua, hemendik: <http://hezkuntza.blog.euskadi.net/kalitatea jardunaldiak/>
- Rivas Navarro, M. (2000). *Innovación educativa. Teoría, procesos y estrategias*. Madrid: Síntesis.

Rodriguez, M. L. (2013). *Guía de tesis*. 2015-04-23an hartua, hemendik:
<https://guiadetesis.wordpress.com/2013/08/19/acerca-de-la-investigacion-bibliografica-y-documental/>

UNESCO. (2004). *El imperativo de la calidad*. Paris: Ediciones UNESCO

Universidad de Navarra. (d.g.). *Tipos de encuestas y diseños de investigación*. 2015-04-26an hartua, hemendik:
http://www.unavarra.es/personal/vidaldiaz/pdf/tipos_encuestas.PDF